



HAL
open science

Etnografiatik gizarte zien tzietarat: Ipar Euskal Herria ikergai

Xabier Itçaina

► **To cite this version:**

Xabier Itçaina. Etnografiatik gizarte zien tzietarat: Ipar Euskal Herria ikergai. Anuario de Eusko Folklore - Eusko Folklore Urtekaria, 2021, 55, pp.67-83. halshs-03499595

HAL Id: halshs-03499595

<https://shs.hal.science/halshs-03499595>

Submitted on 6 Oct 2022

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Etnografiatik gizarte zientzietarat: Ipar Euskal Herria ikergai

Xabier Itçaina Malharin

CNRS, Centre Emile Durkheim, Sciences Po Bordeaux

Laburpena

Azken hogoi urte hauetan Ipar Euskal Herriari buruzko ikerketa frango garatu da, izan dadien etnografiaren haritik edo orokorkiango gizarte zientzietarik. Artikulu huntan behatzen dugu lehenik ze neurritan arraberritu diren Iparraldeko etnografiaren gai klasikoak. Bigarrenik, antropologia politikoaren gorakada dugu aipatuko. Hirugarrenik, aldaketa sozio-ekonomikoetaz ari den ikerketa lerro berri bat garatzen ari da. Bururatzeko, ondoko urteetan barnatu behar litaizken gai eta ikuspegi zonbeit aurkeztuak dira.

Gako-hitzak : Ipar Euskal Herria, etnografia, gizarte zientziak, ikerketa, aldaketa soziala.

*Jasotze data: 2021eko uztailaren 26an
Onartze data: 2021eko abuztuaren 30ean*

Abstract

Over the last twenty years, research in ethnography and, broadly speaking, social sciences on the French Basque Country has been increasing. The article analyzes this renewal in four steps. Section 1 addresses the renewal of the classical ethnography. Section 2 deals with the increase of a new political anthropology in Iparralde. Section 3 turns to the research on socio-economic changes experimented by this territory. In its final section, the article draws new perspective for future research on the French Basque society.

Keywords : French Basque Country, ethnography, social sciences, research, social change.

1. SARRERA

Eusko Folklore Urtekaria aldizkariaren urtemugaren karietarat galdegina izan zaut « Ipar Euskal Herrian etnografiaren egoeraz/garrantziaz » zerbeiten idaztea. Gai zabala eta zaila. Has gaiten hitzak definituz. Etnografiaren erranahiaz huna zer dion Agnès Van Zanten-ek:

«Etnografiaren nozioa antropologia kulturala edo etnologiaren baitan garatu den inkesta metodo bat da, soziologoek ere erabiltzen dutena, batez ere Chicago-ko eskolaren jarraitzaileek. Definizio kontsensualik ez baldin bada ere, Louis M. Smith-ek emaiten duenaren mereximendu haundia da amerikar antropologia eta soziologiaren hiru figura nagusien lanetan oinarritzen dela – Bronislaw Malinowski, William F. Whyte eta Clifford Geertz –, hau da, korrente funtzionalista, interakzionista eta interpretatiboa. Definizio horren arabera etnografiak sei ezaugarri nagusi dauzka : 1) ikerlariak aztertutako komunitatearen baitan denbora ainitz pasatzen du, informazioa behaketa partehartzailearen bidez bilduz ; 2) egun guzietako aktibitateer emaiten zaie areta berezia; 3) aktoreek beren ekintzari emaiten dioten erranahiaren premia ; 4) ulertu nahi diren fenomenoaren testuinguruari eta barne koherentziari emaiten zaio garrantzia ; 5) marko interpretatiboa mailaz-mailako eraikuntza bat bezala kontsideratzen da, eta ez aurretik definitu hipotesia korpus baten frogara bezala; 6) interpretazio moduan nahasten dira narrazioa, deskribapena eta konzeptualizazio teorikoa » (Van Zanten 2013, nere itzulpena)

Definizio hori ber denboran zabala da eta hertsia. Erran dena, Ipar Euskal Herriari buruz atera dira frango ikerketa azken hamarkada hauetan, batzuk beren burua etnografikotzat daukatena, baina ororen buru Van Zanten-en sei baldintzak xeheki biltzen dituztenik ez da hainbertzerik izan. Alta, eta serioan hartzen badugu etnografiaren izaitze metodologikoa, ikusten dugu metodo hori ez dela bakarrik etnografiaren betiko gaietara mugatu behar (bereziki baserri munduari eta gizarte tradizionalari lotua), baina gaur egun Iparraldeko gizarteak ezagutzen dituen aldaketa nagusiak ere aztergai bilaka ditaizkela. Etnografia baten egiteak erran nahi du, ororen buru, gaia muintetik aztertzen dela, ikerketaren urratsak eta dudak tokian-tokiko eragileekin partekatuz, eta eragileek beren ekintzek emaiten dioten erranahiari premia emanez. Ikuspegi hortarik ikusita, *aktoreak* ez dira *agente* xoilak edo ezaugarri soziologiko edo kulturelek astintzen dituzten panpinak, pastoralako Satanen gisara. Beren pentsamoldea badute, eta aktoreen autonomia erlatibo hori da ulertu behar.

Ñabardura horiek gogoan izanikan ere, ez da dudarik azken urteetan ikerketa interesgarri frango atera direla Ipar Euskal Herriko gizarteari buruz, nahiz denek ez duten formalki beti metodo etnografikoa segitu. Ez dut hemen sistematikoa izaiteko xederik. Jakin behar da alde batetik Iparraldeari buruzko ikerketa balios ainitz “gordeak” direla : edo argitalpen konfidentzialak dira, edo argitaratuak izanak ez diren hainbat master tesina eta doktoral tesiek ez dira merexi luketen bezenbat zabalduak. Alde hortarik, balaikere saretze lan eder bat egiteko tokiko ikerle, unibertsitate eta elkarleen artean. Bertzalde eta

gaia hein batean mugatzeko, ez ditut hemen kondutan hartu euskera eta euskal testu eta literatura aztergai dituzten lanak, nahiz eta zubi ainitz badiren gizarte zientzia eta etnografiarekin¹. Hots, eskupean dauzkagun lanekin, korpus ttipi bat osa daitaite, eta lau urratsetan aztertzea proposatzen dut. Lehenik behatuko dut ze neurriraino arraberritu diren Iparraldeko etnografiaren gai klasikoak. Bigarrenik antropologia politiko baten gorakada dut aipatuko. Hirugarrenik, aldaketa sozio-ekonomikoetaz garatzen ari den ikerketa behatuko dut. Bururatzeko, azpimarratuko dut zoin diren ene gostuko literatura horren hutsuneak eta ikerbide berri zonbeiten alderako proposamen zonbeit plazaratuko ditut.

2. ETNOGRAFIA KLASIKOAREN ARRABERRITZEA

Lehendabizik aipa nezazke Euskal Herrian hain indartsua izan den etnografia klasikoaren ohiduran kokatzen diren lanak. Hor sar nezake Jose Miguel de Barandiaranek aspaldian Iparraldean ereman ikerketen alderako interes berria. 2011 an, Barandiaran-ek aspaldian Saran ereman lan etnografikoak bildu, euskeraz itzuli eta argitaratu zituzten (Barandiaran 2011). Barandiaran-en jarraitzaile suharra den Michel Duvert-ek frantsesez osatu zuen euskal mitologiaren hiztegi bat, maisuaren lanetarik abiatuz (Barandiaran eta Duvert 2001). Hari beretik doa aspaldian Lauburu elkarte, beti ikerketaren emaitzak gizarte osora zabaltzeko xedearekin. Liburu sakon eta atsegin andana bat atera zituzten Lauburukoek, aspaldiko gaiak barnatuz: etxea, hil erritoak, mitologia,... Sail hortan lanean ari direnak ez dira jarraitzaile xoilak. Beren idatzietan sendi da arrangura nagusi bat : ze bilakatzen dira Barandiaranek ezagutu mundu sozialaren arrastoak gaur egun? Claude Labat-ek kezka hori barnatu zuen euskal mitologiaren kasuan (Labat 2012). Duvert-ek Ainhoari buruz (Duvert 2004) eta mendi ertainetako bordetaz (Duvert 2008) egin ikerketa xeheetan ere hautemaiten du arrangura hori. Ze bilakatzen dira mendia – Duvert-en kasuan, bereziki Lapurdi eta Nafarroaren arteko muga eskualdea – kudeatzen zuten erakundeak (sentsu soziologikoan) : mendiaren erabiltze arauak, artzainen arteko hitzarmen eta elkarreak, artzaingoa eta laborantzaren arteko harremanak, etxe eta borden arteko loturak, lana eta sinesmenen arteko oreka, erritualak, mugaz gaindiko harremanak. Barandiaranen mundua joan dela aitorturik ere, idazle horiek gaurko gizarteari buruzko gogoeta sakon bat proposatzen dute, modernitatearen paradigma xoiletik doi bat urruntzen dena. Bada oraindik nun zer ikas denbora batez tokiko gizartea egituratzen zuten erakunde eta harremanetarik. Antropologia klasikoan ere sailka ginezake Sandra Ott-ek Santa Graziri eskaini

1 Eta bertze auzo zientziekin ere. Beha adibidez Eneritz Zabaletak zuzenbide publikoan aurkeztu zuen tesia, nun jorratzen dituen euskeraren alderako politika publikoen oinarri legal eta konstituzionalak mugaz bi aldetarik (Zabaleta, 2019).

zión monografia ezaguna bezain sakona (Ott 1993). Antropologoak lan hortan erakusten zuen, 1970 urteetan ereman landa lan batean oinarriturik, prinzipio berdinen (üngürüa eta aldizkatzia) arabera antolatuak zirela Basaburuko herritarren aktibitate ekonomiko, sozial eta erritualak. Bere denboran ekarpen nagusi bat izan zen lan hori, eta antropologia sozialean erreferentzia bat bihurtu zen, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

Etnografia klasikoaren bertze ezaugarri bat da besta, erritual eta dantzari interesa-tzea. Alde hortarik ere, aintzindari haundiek izan dute segipen zerbeit. Dantzari doakio-nez, bertze lan batean saiatu nintzen azaltzera zoin izan ziren ikerlari belaunaldi desberdi-nen ekarpenak (Itçaina 2000). Zerbeit gehitzekotan, erran dezadan bakarrik Guilcher-en (1984) obra nagusitik geroz, frango zaila zela zerbeit berri ekartzea sail hortan. Ikerlari bretoindarrak egina zuen ordu arte sekula eremana izana ez zen ikerketa sistematikoa. XIX. mendean sortu lekuko batzuekin xeheki arizana zen lanean. Lehen eskuko iturrieri esker Guilcher-ek erakutsi zuen Xiberuko dantza teknika modernoaren historizitatea, armadako dantza eskola eta dantza herrikoiaren arteko loturak sozialki eta historikoki kokatuz. Gauza bera Uztaritzeko kaxkarotentzat, Baxenabarreko kabalkada eta dantza jauzientzat, Biarnoko branle eta jauzientzat. Sail hortan bertze ekarpen nagusia izan zen Aita Miguel Angel Sagasetarena. 1977an atera *Luzaideko jantzak* liburuak Baxenabarreko dantza jauzien ohidura zuen barnatu, Historiak Luzaide goi Nafarroan kokaturikan ere. Sagasetaren lanak izan zuen ez-ustezko ondorio bat. Hainbat herrietako soinuari eta dan-tzariiek erabili zituzten liburuan agertzen ziren jauzien doinu eta urratsak tokiko jauzi eta dantzen ohiduraren sustatzeko eta batzutan berpizteko. 2011an Aita Sagasetak atera zuen *Luzaideko jantzak*-en edizio berri bat, bi hizkuntzetan, ikerketa material osatu batekin. Edizio berriaren gehitu zuen dantza maisu eta soinuariaren zerrenda bat, etzena Luzaideri mugatua baizik eta Baxenabarre, Lapurdi, Xiberu, Baztan eta Biarnoraino bazoana. Lan horrekin, etnografian girela ez da dudarik, hain dira xeheki azalduak dantzak eta beren testuingurua, beti lehentasuna emanez tokiko lekukoaren ikuspegi eta jakitateari.

Guilcher eta Sagasetaren bi obra monumentalek izan zuten segida zerbeit. Baran-diaran beka zela medio, Thierry Truffaut-k bildu zituen sistematikoki Lapurdiko herri bakotxean lehen eta gaurko ihauterietako josteta eta usaiak (Truffaut 2011). Bertze lan batean konparatuak zituen Nafarroako Zubietako eta Lapurdiko ihauterien bilakaerak (Truffaut 2006). Antton Luku-k Baxenabarreko libertimendu, kabalkada, asto-lasterren bilakaeraz gogoeta sakon bat proposatu zuen, bereziki herri antzerkiaren ikuspegitik (Luku 2014). Bertze batzuek landu zituzten herri antzerkiaren oinarriak eta aldaketak (Etchecopar-Etchart 2001; Urkizu 1998). Xiberuko pastoralala eta maskaradek aintzina segitu zuten ikerleen inspiratzen, izan dadin aldaketa sozialaren ikuspegitik (Fernandez de Larrinoa 2000), irria eta satiraren lekuaz (Dicharry 2012; 2013a), pastoralaren sozio-his-toriaz (Inchauspé 1999) edo maskaradetako buhamietaz (Lougarot, 2009). Herri soinu-larrietaz ere lan bakar batzu atera ziren, hala nola Faustin Bentaberry eta Garaziko esko-

laz (Aurnague 1993) edo Lapurdi kostaldeko azken herri soinuarietaz (Truffaut 1988, 2004). Pierre Duny-Pétre-k herri literaturaz eta ohiduretz idatzi zituenak berriz agertu zituzten (Duny-Pétre 2014). Han eta hemen egin ziren ikerketa zehatz berriz zonbeit, adibidez gaurko dantza taldeen bilakaeraz (Cachenaut 2021). Olazcuagak aldiz (2017) Aintzinagoko Aroan Baionako soka dantza ofiziala zen Pamperruque-aren historia berrikusi zuen. Bidart-ek bere aldetik Lore jokoan testuinguru kultural eta politikoak aztertu zituen (Bidart, 2001). Jean-Mixel Bedaxagar Urdiñarbeko kantari eta ttuntunero maisuak zonbeit lagunekin bildu zituen Xiberuko dantza-maisu, dantzari eta soinuarien oroimenaren azken pindarrak (Bedaxagar, 2018). Xipri Arbelbidek Besta Berrietaz atera zuen lan bat, kutsu historikoarekin eta oroz gainetik ikonografia aberatsarekin (Arbelbide, 2001). Bertze lan batzuek nahi izan zuten berrikusi tradizio musikal eta dantzatuen historio soziala, elgarri juntatuz etnografoaren begirada eta historialariak daukan iturrien kezka (Velasco, 2017; Itçaina, 2022).

Dantzaz aparte, pilotaren historiaz eremanak izan ziren ikerketa batzu (adibidez, Mourguy, 2017). Kantua eta bertsularitzari buruzko aspaldiko ikerketa ohidura ere arraberritu zen. Marie Hirigoyen-ek berriz hartu zuen XX. mendeko kantu biltzaileen korpua eta kantatzeko manerari buruzko gogoeta bat eskaini (Hirigoyen, 2012). Bertze tesi bat egiten ari da Eloïse Durand Xiberoko emazte kantari taldeetaz (Durand, 2018 ; s.d.). bertsularitzari dagokionez, Denis Laborde-en (2005) *La mémoire et l'instant* lan ederretik landa izan dira hainbat ekarpen, ustegabeen Ipar Euskal Herrian berriz pixkortu den bertsularitzari buruz. Beha adibidez Miren Artetxek Iparraldeko bertso eskoleri buruz berriki aurkeztu zuen tesi ederra (Artetxe, 2020)². Denis Laborde berak bultzatu zuen euskal kantuari buruzko lan kolektibo bat, Euskal Kultur Erakundearen *Kantuketan* erakusketaren haritik zoana (Laborde, 2002). Josu Martínez-ek aldiz kanpoko zinemagilek Euskal Herriaz zaukaten irudimena barnatu zuen zinema dokumentalen lehen urratsak aztertuz (Martínez Martínez, 2016). Hots, euskal etnografiaren gai klasiko hauek bai eta toki eskasez ezin aipatu dituztan bertze hainbat suiet (emigrazioa, gerlen oroimena, hizkuntzaren antropologia,...) ikerlari belaunaldi berriek aintzina jorratu dituzte, problematika eta marko teoriko berri batzuen bidez.

3. ETNOGRAFIA POLITIKOAREN GORAKADA

Etnografia klasiko horren ondoan (« klasiko » diotalarik, gaier doakio, ez baitezpada ikuspegier), hainbat ikerketek miatu dituzte Ipar Euskal herriko gizarteak ezagutu dituen eta ezagutzen ari dituen aldaketa soziopolitiko nagusiak. Nahiz eta ikerketa horiek ez diren

2 Ikus baita ere Dicharry (2013b, 2013c)

formalki etnografiak bezala ikusiak, merexi dute aipatzea. Metodoen aldetik frangotan etnografiatik hurbil badabiltzate eta bertzalde gaurko gizartearen premia eta arranguruzuzenki ihardesten diote. Hemen sailka nezazke bereziki lurraldeko gizarte zibila eta erakunde publikoen arteko harremanak barnatzen dizuten ikerketak.

Jean-Daniel Chaussier-ek euskal departamenduaz egin zuen oinarrizko tesitik landa (Chaussier, 1996) Ipar Euskal Herriko bilakaera politiko-instituzionalari buruz eginak izan dira lan zonbeit. Denak ezin aipatuz, tesi zonbeit nahi nintuzke seinlatu. Igor Ahedo-k, alde batetik, eskaini zuen Iparraldeko abertzalegoaren ikuspegi interesgarri bat, denbora luzean, 1789an hasiz (Ahedo Gurrutxaga, 2006). Ipar Euskal Herriko abertzale eta bertze militantismo moten bilakaera landu zituen Isabelle Lacroix-k bere soziologiako tesian (Lacroix, 2009). Mugimendu abertzalearen barne kalapitak untsa aztertu zituen, eta bereziki 2000 urte hastapenetako alderdien zatiketak. Ikerlea mui-neraino sartu zen aztertzen zuen mundu sozialean, etnografo baten gisara hain xuxen. Erakutsi zuen halaber sozializazio edo heziketa anitzen (erlijiosoa, familiara, eskolakoa, gertakizunen bidez...) garrantzia engaiamenduaren etikaren eraikuntzan. Abertzale eta sindikaten arteko harremanak ere miatu zituen. Azkenik lan horrek pista interesgarriak ireki zituen abertzalegoa, ekologismoa eta altermundialismoaren arteko loturetzaz. Ipar Euskal Herriko historio politikoa ere aztertzen aintzina segitu zuten zonbeit ikerlariek, ikuspegi historikoa, soziologikoa eta antropologikoa nahasiz. Beha adibidez Eneko Bidegain-ek, bertze hainbat lanen artean, Lehen Mundu gerlari eskaini zizkion tesia eta liburua (Bidegain 2012, 2014).

Batzutan antropologoek zuten hurbiletik begiratzen Iparraldeko bilakaera politiko eta instituzionala. Thomas Pierre-ek bere tesian (Pierre, 2007; 2010) bi aldarrikapenen bilakaera segitu zuen : euskal departamenduarena eta euskeraren ko-ofizialtasunarena. 1999etik 2006raino hurbiletik behatu zuen eragileek nola justifikatzen zuten beren militantismoa. Erakutsi zuen aldarrikapen instituzionalak aldatzen zirela bakoitxak euskal kulturarekin zaukan harremanaren arabera. Kulturaren ikuspegi estatiko eta etnikoa zutenentzat, gai horiek esfera publikoan sar ziten ezin onartua zen. Euskal kulturaren izaite dinamiko eta historikoari atxikiak zirenentzat alderantziz, haren ezagupen politikoa justifikatzen zen. Lurraldearen erakundetzea sektoreka aztertua izan da halaber. Jean-Jacques Manterolak bere zientzia politikoan idatzi tesiatik atera liburuan aztertu zituen gizarte ekonomiako bi sektore: lan integrazio egiturak eta etxeko laguntza zerbitzuak. Lan hori mugaz gaindiko konparaketa eta inkesta enpiriko zehatz batean oinarritu zen (Manterola, 2020). Eguzki Urteaga soziologoak bere aldetik Ipar Euskal Herriko hedabideen bilakaera aztertu zuen (Urteaga, 2006), bai eta, Igor Ahedorekin, lurralde gobernantza berria (Ahedo eta Urteaga, 2004).

Gaur egun pil-pilean dagoen bertze gai zuen aztertu Benjamin Gayon-ek bere tesian : luraren auzi koropilatsua (Gayon, 2015; 2016). Ikusiz Iparraldeko eta bereziki

kostaldearen aldaketa demografikoak bai eta lurra eta etxebizitzaren inguruko tentsioak, Gayon-ek behatu zuen botere publikoek nola erregulatzen zituzten merkatu horiek. Aztertutako botere publikoek dezentralizazioak eman tresnak nola erabiltzen zituzten, eta gizarte zibilak bere aldetik nola xutik ezarri zituen lurra eta etxebizitzaren erregulazate sare alternatibo batzu. Lurraren gaia « arazo publiko » (Neveu, 2015) nagusi bat bihurtu zela, eta arazo horren konponketan sartzen zirela eragile publikoak, pribatuak eta gizarte mugimenduak. Tesiak erakusten zuen ere Estado zentralaren jarrera ez zela hain ximplea. Dezentralizazioak ondorio desberdinak izan zituen. Tokiko hautetsi zonbeitek, adibidez, lur eta funtsen politika eremaiten zuten interes orokorra tokiko interes pribatuen gehiketa xoil bat balitz bezala. Kasu hortan, Estadoak zuen interes orokorra bermatzen, eta batzutan ez idurita ere, gizarte mugimenduetarik frango hurbil zen administrazio zentrala. Ikerketak erakutsi zuen baita ere lur eta funtsen erregulatzeko bi xixtema xutik ezarriak izan zirela, bata instituzionala eta bertzea alternatiboa, baina bi xixtemen artean bazirela harremanak eta bitartekaritzak. Gaur egungo eztabaida beroek erakusten dute gisa hortako gogoeten beharra. Halaber aipa ginezake Katalunia eta Euskal Herriko hizkuntzaren aldeko mugaz gaindiko politika publiko eta gizarte mugimenduetaz Lontzi Amado Borthayre egin lana (Amado Borthayre 2012).

Nahiz eta ez den metodo etnografikoa sentsu estriktoan, interbentzio soziologikoaren metodoa erabili zuten bertze bi tesi aipa ginezazke hemen. Touraine, Dubet eta haien jarraitzaileen (Cousin eta Rui 2010) metodoa arraberritu zuten bi lan horiek, metodo horrek daukan zorrotasunarekin : eztabaida taldeak osatu, aintz aldiz bildu, taldearen erranak osoki transkribitu eta taldeari berirakurrarazi, berriz eztabaidatu elgarrekin... Etnografia klasikoak ikerlariak bere burua ahanzarazten badu taldean sartuz eta gordez, hemen alderantziz ikerlaria bera animatzaile eta eragile bihurtzen da, sartzen da eztabaidetan eta solasaldiak bideratzen ditu. Emaizta interesgarriekin, metodoa bururadino eremana baldin bada. Maite Lagrenade-k (2018) ereman zuen eskola elebidunen burrasoeri buruz holako ikerketa sakon bat, eta Txomin Povedak (2020) herri alternatiba sozio-ekonomikoetaz. Agian laister liburu bihurtuko dira bi tesi balios horiek.

4. ANTROPOLOGIA SOZIO-EKONOMIKOAREN ARRABERRITZEA

Hirugarren sail bezala aipa ginezazke Ipar Euskal Herriko bilakaera sozio-ekonomikoa aztertzen duten lanen arraberritzea. Ez ditut baitezpada hemen aipatuko zientzia ekonomiko “gogorretan” agertu diren lanak, baizik eta, artikulu hunen xedea segituz, ekonomia-aren ikuspegi antropologiko eta soziologiko batean oinarritzen direnak.

Hemen sailka nezazke adibidez azken hamarkada hauetan Iparraldeko laborantzaren gorabeherak aztertu dituzten lan zonbeit. Bertzeak bertze eta ikuspegi antropologi-

ko batetik, Welch-Devine eta Murray-k (2011) miatu zuten barnekaldeko laborariak nola egokitu ziren Europar Laborantza Politikaren 2003ko erreformari. Eragozpen eta aukera berrien parean, laborariak beren estrategia ekonomikoak aniztu zituzten, kondutan hartuz ordu arteko laborarien lan eta bizi eremua zena gero eta gehiago aisialdi toki bihurtzen ari zela. Ikusiz Europar Laborantza Politikak nola kordokan ezartzen zuen etxalde ttipien geroa, antropologoek aztertu zuten nola gero eta laborari gehiago ari ziren laborantzatik kanpoko aktibitate berri batzuen garatzen, etxe turismoa bezala. Anita Duhauk halaber (Duhau, 2016) arrapentsatu zituen gaurko etxalde batean bisitari berrien errezebitzeko manierak.

Kepa Fernández de Larrinoa antropologoak (2009), bere aldetik, begiratu zuen nola Xiberun, laborariak eta batez ere artzainek arraberritu zituzten aintzinagoko lan tresna eta erakunde zaharrak beharordu berrier ihardesteko. Gasna kooperatiba baten muntatzea, adibidez, bortuko olharen xixtema zaharraren gaurkotzeko molde bat zen, mozkinaren salmentaren arazoari ihardesteko, partzuergoan segituz, hau da, laneko molde kolektibo batean bermatuz. Laborantxaren historio soziala ere landu zuten ikerlariak, iraganeko garaiak antropologia ekonomikoaren ikuspegitik landuz. Martine Bacqué-Cochard-ek bere tesian miatu zuen Lapurdi-Baxenabarreko etxalde zonbeit bilakaera XIX. mendean biziki lan zehatz eta zorrotz batean (Bacqué-Cochard, 2004). Historialari horrek proposatu zuen halaber Frédéric Le Play-ren *Le paysan du Labourd*, Ainhoan 1856an ereman monografia klasikoaren berrirakurketa sakon bat (Bacqué-Cochard, 2002). Bacqué-Cochard-ek lan hortan erakusten zuen XIX. mendeko etxaldean ekonomia berdenboran hetsia zela (nukleo familiararen erreproduzitze eta auto-kontsumoaren inguruan) eta irekia (merkatuen bidez eta dirutik pasatzen ez ziren trukatzeko xixtema konplexuen bidez). Marie-Pierre Arrizabalagak bere tesian eta argitalpenetan barnatu zuen baita ere etxearen transmisioaren bilakaera, Saran bertzeak bertze (Arrizabalaga, 1997). Erregimen Zaharrari doakionez, Anne Zink-ek liburu garrantzitsu batean euskal kasua arrakokatu zuen ikuspegi konparatibo batean Frantzia Hego-Mendebaldeko etxearen transmisio xixtema desberdinak landuz (Zink, 1993). Obra nagusi bat, zuzenbidea eta historia uztartu zituenak.

Ikerketa horiek erantzuten zuten, inplizituki bada ere, euskal etnografiari luzaz egina izana zitzaion kritika bateri: hau da, gizarte errural tradizionalaren irudi bat finkatu zuela, doi bat idilikoa eta denboran aldatzen ez zena. Ikerketa berriek, alderantziz, erakusten zuten laborari, artzain, arraintzale eta bertze beti egokitu zirela beren garaian, beren laneko tresna kolektibo eta indibidualak beti berasmatuz. « Ez da beharra bezalakorik », dio erran zaharrak. Sandra Ott berak ere aintzina segitu zuen lanean Xiberun, bainan bere metodoa arraberrituz. Historizitatea berriz sartu zuen Xiberoko gizarteak bi mundu gerler nola ihardoki zion hurbiletik aztertuz. Behatu zuen bereziki tokiko komunitateak bere erregulazio xixtemak nola egokitu zituen gerla egoeran (Ott 2006, 2008, 2017).

Bertzalde eta berrikitan, ikerlari talde batek Elinor Ostrom-en *commons*-en konzeptua erabiliz berrikusi du Sandra Ott-ek hurbiletik aztertu zuen Xiberuko bortuko olha eta artzaingoaren mundu soziala (Bagdassarian et al., 2019).

Laborantza eta artzaingotik kanpo, Cendrine Lagoyeite-k gaurko bertze herronka nagusienetarik bat aztertu zuen, hau da, turismoaren ekonomiak euskal irudi eta irudimena nola erabiltzen zuen (Lagoueyte, 2010). Serge Labordek (Laborde, 2007) bere aldetik, eta geografia kulturalan oinarrituz, Euskal Herriko arraintzaren bilakaera historikoa aztertu zuen mugaz bi aldetarik, hortan ere Europar Batasunaren politiken eragina hurbiletik aztertuz. Antropologia ekonomikoa eta zientzia politikoak uztartu dituzte ere Ipar Euskal Herriko kooperatibismoaz eta gizarte ekonomiaz garatzen ari diren lanak (Itçaina 2010) eta berezikiago azken denbora hauetan tokiko monetaz (Fois-Duclerc s.d.; Pinos 2020).

Bertze antropologo batzuek mugaren mundu sozial eta ekonomi berezia hurbildik aztertu zuten. Bere tesitik atera liburuan, Zoe Bray antropologoak aztertu zuen tokiko nortasun kolektiboak nola eraikitzen ziren Bidasoa-Txingudiko partean (Bray, 2004). Mugaz gaindiko lankidetzaren proiektu bat hartuz behatoki bezala, liburuak barnatzen zuen zoin ziren identitate partekatu baten oztopoak eta aukerak. Antropologia sozialaren haritik, liburuak egunerokotasunaren etnografia sakon batean oinarritzen zen. Identitatearen ikuspegiak ere berriz lantzen zituen erakutsiz identitate kolektiboak beti aldatzen zirela eta egokitzen muga desberdinen konfigurazioen arabera. Aitzpea Leizaola antropologoak ere tesia mugaren problematikari eskaini zion (Leizaola Egaña 2010). Mugaren konzeptua landu zuen sakonki, ber-denboran lotura eta berexketa bezala. Mugako lurralde eztabaidak, kontrabanda, turismoa eta mugaz gaindiko harremanak aztertu zituen Euskal Herri barnekaldeko muga herrietan pasatzen zena behatuz. Aipa dezagun halaber Benjamin Duinat-ek eremaiten ari duen Historiako tesia, zoinek antropologia kutsu batekin berrikosten duen mugaren historio sozial eta diplomatikoa (Duinat s.d.).

5. HUTSUNEAK ETA IKERKETA BIDE BERRIAK

Ororen buru, eta hastapenean eman definizioa berriz hartzen badugu, ikusten dugu hemen ekarri ditugun ikerketak ez direla baitezpada edo beti ikerketa etnografikoak, sentu hertsian. Bainan, gorago erran bezala, denek sakonki aztertzen dute Ipar Euskal Herriaren gizartearen bilakaera, atzo eta egun. Kutsu etnografiko zerbeit badutela denek, hori ezin uka. Ikerketa kualitatiboak dira, eta jendek beren ekintza eta biziari emaiten dioten sentuari garrantzia emaiten diete beti. Errepaso labur hunen bururatzeko, aipa nezazke bide nabar oraindik airean gelditzen diren gai zonbeit, eta hain segur ondoko urteetan aintzinamendu zerbeit ezagutuko dutenak. Hiru berex nezazke.

Alde batetik, iduri zaut badela ikerketa eremu eder bat irekitzen ari dena ondarearen konzeptuaren inguruan. Gure iraganaren kudeatzeko molde bat bilakatzen ari da ondarea, politika publikoek bultzatzen dutena bertzalde. Euskal Kultur Erakundeak Frantziako Kultur ministeritzaren Etnopoloa labela ardietsi zuen orain duela zonbeit urte, etnologia alorreko ikerketa eta baliabide bilgune bihurtzeko xederekin. Kultura ondare imaterialaren inguruko ikerketa, informazio eta kultura mailan lanean ari diren erakundeak emana zaie ezagupen hori. Marko hortan sartzen dira bertzeak bertze Terexa Lekumberrik 2007tik geroz egin hainbat elkarrizketa filmatuak, Eleketa programaren baitan³. Egitasmo horri lotua da baita ere Aitzpea Leizaola antropologoak Hazparneko zapagintzaren oroimenaz egiten ari den ikerketa. Gizarte erakunde eta batez ere politika publikoek ondareaz duten grina hori interesgarria da. Bixtan da desagertzeaz dagoen memoria kolektibo baten salbatzeko beharrezkoak direla lan horiek. Bainan bertzalde, interesgarria da ikustea “ondarea”ren hizkera hori dela denbora batez kalapita gogorrak sortzen zituzten gai batzuen neutralizatzeko molde bat ere. Elizetako galeria eta jarlekuak *ondare* bilakatzen badira, balore sozial berri bat hartzen dute, erlijionearen alde edo kontra direnen arteko auzi politikotik doi bat urruntzen dena. Halaber Besta berriko prosesoentzat. Besta edo erritual horiek « ondare ez-materiala » bihurtzen diren ber hartzen dute balore berri bat, beren funtsezko funtzio sozialetarik berex. Denbora batetako arraintzan aritzeko manera ondare bilakatzen delarik, erran nahi ote du alderat hila dela lan eta bizimodu hori, edo alderantziz, gizarteak balio berri bat emaiten diola gure iraganaren parte horri, geroko erakaspenak ateratzeko gisan? Hots, bada hor ondoko urteendako lehen ikerketa lerro interesgarri bat.

Bigarrenik, iduritzen zaut etnografiaren begiradaren beharra izanen dugula ondoko urteetan Ipar Euskal Herriak ezagutuko dituen aldaketen aztertzeke, bai instituzional mailan, bai gizarte mailan. 2017an herri elkargo bakar bat osatuz geroztik, politika publikoeri buruzko itzaropen berri ainitz sortu dira gizartean. Ikerlariak beharko dute hurbiletik segitu bai erakundetze prozesu hori, bai gizarte mugimendu eta eragileek ze heineta-raino parte hartuko duten politika berri horien egituratzean. Mundu sozial bakotxaren konplexutasuna kondutan hartuz. Diziplinarteko begiradak beharrezkoak izanen dira alde hortatik. Kultur mailan adibidez, euskal identidadeaz aspaldian erranak eta idatziak izan direnak errepikatzeke orde, uste dut interesgarria litaikela behatzea nola egituratzen ari den kultur merkatu ttipi bat, nun artistak eta eragileak profesionalizatzen diren, eta nun harreman berriak lotzen dituzten bai erakunde publikoekin, bai merkatuko eragile pribatuekin, bai herri mugimenduekin. Graxi Irigarai-ek (Irigarai, s.d.) euskal zinemaren ekoizpen eta banaketaren arazoari buruz eremaiten ari duen tesiaren emaitzak alde

3 EKE, “Eleketa. Ahozko memorioaren bilketa”, <https://www.eke.eus/eu/euskal-etnopoloa/iker-gaiak/ahozkotasuna/eleketa> 2021ko uztailearen 23an kontsultatua.

hortarik interesgarriak izanen dira. Ekonomiaren harat-hunatetaz izanen da nun zer mia, beti ikuspegi etnografo zabal batetik. Hautu ekonomikoen gibelean beti bada hautu politiko eta errealitate ekonomikoen arteko hautsi-mautsi zerbeit. Laborantxan, hainbat ekoizpen eta banatze eredu desberdin aurkitzen dira, eta laborantxa iraunkorraren munduan ere barne eztabaidak badira eredu desberdinen artean (biologikoa, agroekologikoa, konbentzionala,...). Bertzalde, sektore bakotxean badira erregulazio eskala desberdinak, tokian-tokikotik globaleraino, eta eragile bakotzak ze eskaletan jokatzen duen behar da aztertu. Adibidez, ohargarri da Iparraldeko laborantza iraunkorreko militanteak frango sartuak direla Frantzia mailako Confédération paysanne sindikatan, nazioarteko Vía Campesinan eta bertze hainbat mugimendu sozialetan. Aldaketa sozio-instituzional horiek oro generoaren aldetik ere aztertu behar dira, bere denboran Terexa Lekumberrik egin zuen tesiaren ekarpenak erabiliz eta gaurkotuz (Lekumberri 1990). Bakegintzan sartuak diren gizarte mugimenduen bilakaera ere segitu beharko dute ikerlariak, ikusiz Iparraldeak hartu duen lekua 2011tik geroz, bai eta irekitzen ari den gatazka politikoaren memorien arteko lehia (Guibet-Lafaye, 2020). Hots, instituzioen eta herrigintzaren arteko dinamiketaz bada ikerketa xendra bat, jada zonbeit ikerlek jorratzen ari dutena.

Azkenik eta gaurkotasunetik doi bat urrunduz, balitaike oraindik zer egin etnografoentzat antropologia, historia eta bertze gizarte zientzien arteko elkarrizketaren barnatuz. Ondikotz, oraindikan ere Ipar Euskal Herriari doakionez, frangotan elgarrengandik berex agertzen dira bi literatura : bata, historikoa, gertakari eta eliteen bilakaera politikan mugatzen dena, bertzea etnografikoa, denbora batetako ohidurer beren historizitatea ukatzen diotena. Bien arteko ainitz bide balitazke jorratzeko, Manex Goyhenetche-k ireki historia sozialaren haritik (Goyhenetche, 1998-2005). Eta bixtan da gaiaren mugatzeko hemen aipatu ez dituztan euskal testu eta literaturaren ikerketarekin badirela hainbat zubi eraikitzeko. Hemen leku eta jakitate eskasez aipatu ez dituztan guziak barne. Ondoko ikerle belaunaldiek badute hasteko nun jasta eta nun josta.

6. ERREFERENTZIAK

Ahedo Gurrutxaga, Igor (2006): *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)*, Bilbo, Eusko Jaurlaritza (2 t.).

Ahedo Gurratxata, Igor eta Urteaga Olano, Eguzki (2004), *La nouvelle gouvernance en Pays basque*, Paris, L'Harmattan.

Amado Borthayre, Lontzi (2012): *La construction collective de l'action publique en faveur de la langue dans un cadre transfrontalier au Pays Basque et en Catalogne*, thèse en science politique, Sciences Po Bordeaux, Université de Bordeaux.

- Arbelbide, Xipri (2001): *Besta Berri*, Saint-Sébastien, Ostoa.
- Arrizabalaga, Marie-Pierre (1997), "The stem family in the French Basque Country: Sare in the nineteenth-century", *Journal of Family Research*, 22(1), 50-69.
- Artetxe Sarasola, Miren (2020): *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak: gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak*, Doktoradutza tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aurnague, Michel (1993): « Faustin Bentaberriren eragina Baxe Nafarroko musika eta dantzetan: aparteko kasu bat », *Txistulari*, n°156, 8-12.
- Bacqué-Cochard, Martine (2002): « La petite exploitation rurale et les monographies leplaysiennes. L'exemple des Paysans du Labourd », *Ruralia*, 10/11.
- Bacqué-Cochard, Martine (2004): *Petites exploitations rurales en Pays basque français (1850-1900)*, Thèse pour le doctorat en Histoire, Université Lumière Lyon 2, SE-REC, soutenue le 19 juin.
- Bagdassarian, Isabelle, Peneranda, Adrien eta Baron, Catherine (2019): « Evolution d'un commun d'altitude: entre matérialité et immatérialité. Le cas de la montagne basque de Soule en Pyrénées-Atlantiques », *Développement durable et territoire*, 10 (1) : 1-21.
- Barandiaran Ayerbe, José Miguel de eta Duvert, Michel (traduction et annotations) (2001): *Dictionnaire illustré de mythologie basque*, Baiona, Elkar.
- Barandiaran Ayerbe, José Miguel de (2011): *Sara: ikerlan etnografikoa*, Barandiaran fundazioa.
- Bedaxagar, Jean-Michel (2018) : *Aintzina pika ! Ziberoko jauzien, dantzarien eta soinügilien üngürian... Autour des sauts, des musiciens et des danseurs en Soule*, Maule, Sü Azia.
- Bidart, Pierre (2001) : *La singularité basque*, Paris, PUF.
- Bidegain Aire, Eneko (2012), *Lehen gerla mundiala 'Eskualduna' astekarian. Astekariaren ildo editorialaren azterketa*, thèse de doctorat en Etudes basques et en Histoire contemporaine, Université de Bordeaux III, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2014): *Lehen mundu gerra eta Euskal Herria*, Baiona, Elkar.
- Bray, Zoé (2004): *Living boundaries. Frontiers and identity in the Basque Country*, Bruxelles, Peter Lang.
- Cachenaut, Alaia (2021) : *Apprendre à devenir et à être un danseur. Danser dans les groupes de danse de la province du Labourd en Pays basque*, mémoire de M2 anthropologie, Université Toulouse Jean Jaurès, Dpt d'anthropologie.

- Chaussier, Jean-Daniel (1996) : *Quel territoire pour le Pays Basque ? Les cartes de l'identité*, Paris, L'Harmattan.
- Cousin, Olivier eta Rui, Sandrine (2010) : *L'intervention sociologique. Histoire et actualité d'une méthode*, Rennes, Presses Universitaires de Rennes.
- Dicharry, Eric (2012) : *Du rite au rire. Le discours des mascarades souletines*, Paris : L'Harmattan.
- (2013a) : « Georges Hérelle et le théâtre basque », *Lapurdum*, 17.
- (2013b) : « Double sens, ironie, allusion, sous-entendu et insinuation dans le bertsularisme contemporain », *Lapurdum*, 17, 37-53.
- (2013c) : *L'écologie de l'éducation. Un anthropologue à l'école du bertsularisme*, Paris : l'Harmattan.
- Duhau, Anita (2016) : *L'accueil mosaïque comme rapport sensible au monde. Pratiques plurielles d'une petite ferme au Pays Basque*, thèse Sciences de l'éducation, Pau, UPPA.
- Duinat, Benjamin (s.d.) : *Autour de "la ligne divisoire". L'espace frontalier du Pays Basque à l'âge des États-nations (1780-1920)*, doctorat d'histoire moderne et contemporaine (Université Paris Sciences & Lettres) et *doctorado de Ciencias Políticas y Relaciones Internacionales* (Universidad Complutense de Madrid) (en cours).
- Duny-Pétre, Pierre (2014) : *Idazlanak*, Euskaltzaleen Biltzarra.
- Durand, Eloïse (2018) : « Chant féminin et attachement aux lieux dans la région de Soule en Pays basque », *L'information géographique*, 4(82), 88-121.
- (s.d.) : *Chants de femmes au Pays basque : Evolution des « groupes de filles » dans les vallées de Soule*, thèse de géographie en cours, Université Bordeaux Montaigne, Directeur de thèse : Yves Raibaud.
- Duvert, Michel (2004) : *Ainhoa. Trois siècles de vie en montagne basque*, Baiona, Elkar.
- (2008) : *Voyage dans le Pays Basque des bordes*, Baiona, Elkar.
- Etchecopar-Etchart, Hélène (2001) : *Théâtres basques. Une histoire du théâtre populaire en marche*, Baiona, Gatuzain.
- Fernandez de Larrinoa, Kepa (2000) : *Carnival theatre, cultural performance and folk aesthetics in a French Pyrenean Basque valley*, PhD thesis PhD thesis, London School of Economics and Political Science.
- (2009) : « Pastoreo en Sola. De la transhumancia a los pastos de altitud y a las queserías en el fondo del valle », *Ager. Revista de despoblación y de desarrollo rural. Journal of depopulation and rural development studies*, 8, 25-43.

- Fois-Duclerc, Mathilde (s.d.) : *Sociologie politique d'une monnaie locale, le cas de l'eusko*, thèse en science politique, Bordeaux, Centre Emile Durkheim, GREThA (en cours).
- Gayon, Benjamin (2015), *Maîtrise foncière publique en zone littorale : les politiques locales de régulation foncière sur la côte basque française*, Thèse de doctorat en Aménagement de l'espace et urbanisme, Université de Tours, 17 septembre.
- Gayon, Benjamin (2016): *Le foncier au Pays basque. Un territoire d'expérimentations*, Baiona, Elkar.
- Goyhenetche Etxamendi, Manex (1998-2005): *Histoire générale du Pays Basque* (5 tomotan), Baiona, Elkar.
- Guibet-Lafaye, Caroline (2020): *Conflit au Pays Basque. Regards de militants illégaux*, Bruxelles, Peter Lang.
- Guilcher, Jean-Michel (1984) : *La tradition de danse en Béarn et en Pays Basque français*, Paris, Editions de la MSH, 1984.
- Hirigoyen Bidart, Marie (2012) : *Le chant basque monodique (1887-1990) Analyse musicologique comparée des sources écrites et musicales*, thèse de doctorat Musique, musicologie et arts de la scène. Université Toulouse le Mirail - Toulouse II, 2012.
- Inchauspé, Véronique (1999) : « A propos de la construction historique de la pastorale souletine », *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 33(1), 79-123.
- Irigaray, Graxi (s. d.): *Langue minorisée, politique culturelle et secteur audiovisuel: le cas de la diffusion du cinéma basque en France*, Kotutelazko tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Centre Emile Durkheim, Sciences Po Bordeaux EDSP2.
- Itçaina Malharin, Xabier (2000): « Dantza Ipar Euskal Herrian : herri kulturatik euskal kulturarat » (la danse en Pays basque français, de la culture populaire à la culture basque), *Sukil, cuadernos de cultura tradicional*, 3, 323-340.
- (2010) : « Les régimes territoriaux de l'économie sociale et solidaire : le cas du Pays Basque français. », *Géographie, économie et société*, 12(1), 71-87.
- (2012) : « Désordre public et ordre social. Charivari et politique en Labourd intérieur (XIXe-XXe s.) », dans L. Le Gall, M. Offerlé, F. Ploux (dir.), *La politique informelle*, Rennes, Presses universitaires de Rennes, 189-208.
- (2016): « La société du tambourin. La découverte incomplète du ménétrier en Pays Basque », dans L. Le Gall, J.-F. Simon (dir.), *Jalons pour une ethnologie du proche. Savoirs, institutions, pratiques*, Brest, CRBC-UBO, 103-124.
- (2022) : *La société du tambourin. Une histoire sociale de la musique à danser en Pays Basque*, Turnhout, Brepols (agertzekotan).

- Labat, Claude (2012): *Libre parcours dans la mythologie basque avant qu'elle ne soit enfermée dans un parc d'attraction*, Baiona, Elkar.
- Laborde, Denis (2005): *La mémoire et l'instant. Les improvisations chantées du bertsulari basque*, Baiona, Elkar.
- (dir.) (2002) : *Kantuketan. L'univers du chant basque*, Bayonne, Saint-Sébastien, Elkar.
- Laborde, Serge (2007) : *Les pêches maritimes basques entre déclin et recompositions*. Thèse pour le doctorat en géographie, Nantes, Université de Nantes.
- Lacroix, Isabelle (2009): *Actions militantes et identités basques. Trajectoires d'engagement, socialisations militantes et constructions identitaires dans les organisations nationalistes (et non nationalistes) au Pays basque français*, Thèse pour le doctorat de sociologie, Université Versailles-Saint Quentin en Yvelines, laboratoire Printemps, 20 Novembre.
- Lagoueyte, Cendrine (2010) : *Usage des motifs culturels dans la construction de l'image(rie) touristique. "Ongi Etorri. Bienvenue au Pays basque"*, Thèse de doctorat, Ethnologie, Bordeaux 2.
- Lagrenade, Maite (2018): *Langue basque, identité et territoire. Logiques d'action et mobilisations collectives autour de la scolarisation en basque*, Thèse pour le doctorat en sociologie, Université de Pau et des Pays de l'Adour.
- Lekumberri, Terexa (1990) : *Femmes basques et société contemporaine : rupture et continuité : étude menée en Pays Basque intérieur : Baigorri et ses environs*, Thèse de doctorat en ethnologie, Univ. de Bordeaux.
- Leizaola Egaña, Aitzpea (2010): *Frontière, identité et territoire au Pays Basque*, Thèse de doctorat en ethnologie, Paris X.
- Lougarot, Nicole (2009) : *Bohémiens*, Baiona, Gatuzain.
- Luku, Antton (2014): *Libertitzeaz*, Pampelune, Pamiela.
- Manterola, Jean-Jacques (2020) : *Le social à l'épreuve des valeurs. D'un Pays basque à l'autre*, Pessac, Presses de la MSHA.
- Martínez Martínez, Josu (2016): "Searching for Ramuntcho: foreign filmmakers in the French Basque Country", *Communication & Society*, 29(3), 15-31.
- Mourguy, Evelyne (2017): *Pelote basque, entre héritages et créations : identités et représentations*, Thèse de doctorat en études basques, Université Bordeaux Montaigne.
- Neveu, Erik (2015): *Sociologie politique des problèmes publics*, Paris, Armand Colin.

- Olazcuaga, Jon (2017) : *La pamperruque, une danse bayonnaise*, mémoire M1 UPPA, Master Arts, lettres et civilisations.
- Ott, Sandra (1993): *Le cercle des montagnes. Une communauté pastorale basque*, Paris, CTHS.
- (2006): « Good tongues, bad tongues: denunciation, rumour and revenge in the French Basque Country, 1943-1945 », *History and Anthropology*, vol. 17(1), March, p. 57-72.
- (2008): *War, judgment and memory in the Basque borderland, 1914-1945*, Reno, University of Nevada Press.
- (2017): *Living with the Enemy: German Occupation, Collaboration and Justice in the Western Pyrenees, 1940-1948*, Cambridge, UK: Cambridge University Press, 2017.
- Pierre, Thomas (2007) : *Les revendications institutionnelles contemporaines en Pays Basque de France. Représentations du monde basque et discours politiques*, thèse en anthropologie, Paris, EHESS.
- (2010), *Controverses institutionnelles en Pays basque de France. Usages politiques et déconstruction des préjugés socioculturels*, Paris, L'Harmattan.
- Pinos, Fabienne (2020) : « La monnaie locale eusko, une démarche stratégique dédiée à la création de valeur publique territoriale ». *Revue Internationale de l'Economie Sociale*, 1(355), 28-46.
- Poveda, Txomin (2020): *There is an alternative. Expériences de la pensée radicale et de l'agir pragmatique au Pays Basque Nord*, thèse en sociologie, Université de Pau et des Pays de l'Adour.
- Sagaseta, Miguel Angel (2011 [1977]) : *Luzaideko jantzak. Danzas de Valcarlos* (edizio Berri eta emendatua) Bilbao, Gara.
- Truffaut, Thierry (1988) : « Les instruments de musique utilisés dans le Labourd à travers les textes anciens et l'iconographie », *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 52, 403-413
- (2004) : « Un siècle de danse. Pili Taffernaberry et Xatorra. Derniers mainteneurs de la traditions des sauts basques en Labourd », in Ekaina, *Bidart*, Saint-Jean-de-Luz, Ekaina, 2004, 420-433.
- (2006) : *Joaldun et kaskarot. Des carnivals en Pays Basque*, Bayonne, Elkarlanean.
- (2011) : *Vers un inventaire des traditions carnavalesques et hivernales dans la province du Labourd*, Ataun, Fondation Barandiaran, « Barandiaran bilduma 15 ».

- Van Zanten, Agnès (2013) : « Ethnographie », *Sociologie* [En ligne], Les 100 mots de la sociologie, mis en ligne le 01 mars 2013, consulté le 13 juillet 2021. URL : <http://journals.openedition.org/sociologie/1767>.
- Velasco, Maria José (2017) : *Popular song, Revolution, and devotional culture in the French Pyrenees, 1780-1850*, Ph.D. in Music History and Theory from the University of Chicago, Chicago.
- Welch-Devine, Meredith eta Murray, Seth (2011) : “‘We’re European Farmers Now’: Transitions and Transformations in Basque Agricultural Practices”, *Anthropological Journal of European Cultures*, 20(1), 69-88.
- Urkizu, Patri (1998) : *Zuberoako irri teatroa. Recueil des farces charivariques basques*, Baigorri, Izpegi.
- Urteaga Olano, Eguzki (2005), *Les médias en Pays basque. Histoire d’une mutation*, Paris, Mare et Martin.
- Zabaleta, Eneritz (2019) : *Le droit de la langue basque. Etude comparée France-Espagne*, Thèse en droit public, Université de Pau et des Pays de l’Adour, Euskal Herriko Unibertsitatea, 4 décembre 2019, Bayonne.
- Zink, Anne (1993) : *L’héritier de la maison. Géographie coutumière du Sud-Ouest de la France sous l’Ancien Régime*, Paris, EHESS.